

Orbelak eta fruituak

Euskaldunon Egunkaria, 1996-01-14: 3.

Den guztiak du hasiera eta azkena. Zuhaitz batek, esate baterako, edo herri batek. Honetaz pentsatzen jarri nau gure bertsolari gazteek egunotan darabilten modernotasunaren gaiak. Sinestarazi digute maizegi gure historian euskaldunok antzinakoak besterik ez garela. Gu menderatzeko modu erosoak! Eta, egiatan, ekuazio honek erakutsi digu ez garela inoiz inora heldu oraindik, ez dakigula gurea hostoak edo fruituak ematea den. Gaur gure bertsolari gazteak konturatu dira bertsolaritza ez dela lehen egiten zena egiten jarraitzea, baizik eta garai bakoitzean sasoiko gaiak eta edukinak erabiltzea; eta ez iraganaz hitz egin ezin dugulako, iragana gaur ere bizi da guran, oroimenik badugu, baina ez garela iragana bakarrik, gaurkoak ere bagarela. Eta lanaz ari direla aipatu dute, *alferkeriaren ordezkari langabezia*, eta *Unibertsitatea*, ez lehen falta zitzaiguna, baizik eta langabeen fabrika moderno bezala. Egia da gazteak ez direla beti ulergarriak, baina zaharrok ez garen neurri beretsuan, nonbait, zeren eta Pedrotxo elaberrian neronek gure herriko ikasbide, sormen eta pentsamolde xelebreak ez ditut irrigarri diseinatu, askok ulertu duten bezala, gure izakera alfer horiek literatur-bidez salatuz gainditzeko asmotan baizik.